

2010ean Euskal AEko ia 1.500 pertsonak bioteknologiako I+G jardueretan lan egin zuten

Bioteknologiako I+G jardueren barne-gastua 87,4 milioi eurokoa izan zen 2010. urtean

EUSTATen datuen arabera, 2010. urtean, bioteknologiari lotutako jardueretako I+Gko barne-gastua 87,4 milioi eurokoa izan zen Euskal AEn. Bioteknologiako barne-gastu hori % 8,5 igo zen 2009. urtekoarekin alderatuta, eta I+Gn egindako barne-gastu osoaren % 6,4 da.

1. taula: Bioteknologiako barneko I+G: gastuaren eta langileen bilakaera (DOB) Euskal AEn. 2007-2010

	2007	2008	2009	2010
Barneko I+Gko gastuak				
Guztira (mila eurotan)	80.842	91.583	80.557	87.401
Urteko Gehikuntza (%)		13,3	-12,0	8,5
Langileak (DOB)				
Guztira (mila eurotan)	779,2	826,8	898,9	1.027,3
Urteko Gehikuntza (%)		6,1	8,7	14,3
Ikertzaileak (DOB)				
Guztira (mila eurotan)	640,6	679,9	739,7	797,0
Urteko Gehikuntza (%)		6,1	8,8	7,7

DOB= Dedikazio Osoko Baliokidetza

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Bioteknologiako I+Gri buruzko estatistika

2010. urtean guztira 76 entitatek (62 enpresak, administrazioaren menpeko 12 zentrok eta 2 unibertsitatek) egin zituzten bioteknologia ikertzeko jarduerak, jardun osoan edo partzialen. Horietako 51tan, jarduna nagusia edo bakarra izan zen, barne-gastuaren erdia baino gehiago erabili zutelako bioteknologiako I+Grako.

Esparru honetako langile kopurua 1.434 izan zen. Dedikazio Osoko Baliokidetzan 1.027 langile enplegatu ziren, hau da, I+Gn lan egin zuten langileen % 5,9, eta aurreko urtean baino % 14,3 gehiago. Langile horietatik 797 DOBko ikertzaileak izan ziren, eta hauen kopuruak ere gora egin zuen aurreko urtearekin alderatuta, % 7,7an.

Nabarmenezkoa da bioteknologian lanaldi osoan aritu ziren 10 langiletik 6 emakumezkoak izan zirela (% 63,4), I+Gko ikerketa sektore gutxiak (% 33,4) baino ehuneko handiagoa.

Euskal AEko bioteknologiako gastuaren % 63,1 enpresen sektoreak egin zuen

Egikaritze-sektoreka aztertuta, Enpresen sektoreak izan zuen bioteknologiako I+Gko jardueren barne-gastu osoaren ehunekorik handiena (% 63,1), eta gero Goi Mailako Irakaskuntzak (% 31,6) eta Administrazio Publikoak (% 5,3).


Administrazio publikoak bioteknologiako jardueren % 67,5 finantzatu zituen

Funtsen jatorria aintzat hartuta, bioteknologiari lotuta dauden barneko I+G jarduerak batez ere Administrazio publikoak (% 67,5) eta Enpresek (% 23,1) finantzatu zituzten 2010. urtean. Gainerakoa atzeritik etorritako funtsen bidez (% 4,5), Goi-mailako irakaskuntzaren bidez (% 2,9) eta irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuen bidez (% 2,0) finantzatu zen.

Bioteknologiaren ikerketaren ondoriozko produktuak batez ere hurrengo eremuetan aplikatu ziren: Gizakien osasuna (% 75,0) eta Ingurumena (% 6,4). Gainerako % 18,6 antzeko ehunekoetan banatu zituzten hurrengo eremuek: Elikadura, Industria, Animalien osasuna eta akuikultura eta Nekazaritza eta basogintza.

Bestalde, produktu eta prozesu bioteknologikoak garatzeko eta merkaturatzeko jardueren aurrerapena nabarmen oztokatzen duten traba nagusiak hauexek izan ziren: Kapitala eskuratzea, Denbora/kostua eta Giza baliabideak eskuratzea.

1. grafikoa: Bioteknologiako I+G garatzeko oztopak (%) 2010



Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko Bioteknologiako I+Gri buruzko estatistika

Amaitzeko, EINen arabera, 2009. urtean (eskuragarria den azken urtea) Espainiako estatuan 1.414,1 milioi euroko gastua egin zen bioteknologiako I+Gn, hots, I+Gko jardueretarako barne-gastu osoaren % 9,7. Horrez gain, 21.673 pertsona izan ziren esparru horretan lanean, I+Gn lan egiten zuten pertsona guztien % 9,8.

Ohar metodologikoa:

Bioteknologiako I+Gri buruzko estatistika Ikerketa eta Garapenari buruzko Estatistikaren eranskin gisa jaso da 2007. urteaz gero.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es

Persona de contacto: Pilar Vázquez Sancho

Tlf:+34-945-01 75 46 Fax:+34-945-01 75 01